



Ikastetxeko Jangelako araudia

elatzeta

1. Sarrera

Elatzeta eskolak eskaintzen dituen zerbitzuen artean bat jangela da. Jangelan, elikadura orekatuaren garrantziaz jabetzeaz gain, elkarbizitzarako ezinbestekoak diren arauak barneratzen irakatsi nahi da. Beraz, dagozkion xede guztietarako, eskolako beste edozein jarduerari ematen zaion trataera izango du; horregatik, Elatzeta eskolako Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan, Antolakuntza Jardueren Araudian eta Ikastetxeko Urteko Planean jasota dauden helburu eta arau orokorren ondorio zuzena da jangelako araudi hau. Jangelan bazkaltzen gelditzea ez da derrigorra. Jangelan geratzen den edonork Eskola Kontseiluak onartutako araudi hau ezagutu eta bete beharko du ezinbestean. Arauak ez betetzeak ondorioak izango ditu. Bazkalkide, begirale, sukaldari eta jangelako arduradunen artean gizalegea izango da oinarri, ezinbestean. Horrelako zerbitzu batek martxa egokia izan dezan nahitaezko da denok zintzotasunez eta begirunez jokatzeari.

2. Oinarrizko arau orokorrak

- 2.1. Bazkaltiar guztiek menu berbera jango dute. Menu bereziak onartuko dira, betiere mediku-egiaztagiria aurkezten bada. Jangelatik ezin da janaririk atera.
- 2.2. Jangelako hutsegiteak justifikatu egin behar dira.
- 2.3. Jangelako txukuntasuna denon ardura eta eginkizuna da.
- 2.4. Behin-behineko ikasle bazkaltiak onartuko dira, baldin eta sukaldari eta zaintzaileen ratioen gainetik ez bada geratzen ikasle kopurua.
- 2.5. Jantokiko kuotak itzultzen dira baldin eta 5 egunez jarrian huts egiten bada eta familiak alde aurretik abisatzen badu. Kasu honetan kuotaren % 50 itzuliko da.
- 2.6. Jankideren batek ez badu kuotarik ordaintzen, jantokiko plaza galduko du. Jantokiko plaza kentzea Eskola kontseiluak erabaki beharko du.
- 2.7. Jantokiko kuotak itzultzen dira baldin eta 5 egunez jarrian huts egiten bada eta familiak alde aurretik abisatzen badu. Kasu honetan kuotaren % 50 itzuliko da.

Hezkuntza Sailaren diru laguntza (beka) jasotzen duten ikasle bazkaltiarrei ezin zaie inolara ere ezer itzuli.

3. Jangelako arduradunen eginkizunak eta betebeharrak

- 3.1. Zerbitzu egokia eskaintzea (kalitatea, kantitatea, menuen egokitasuna..) dituzten bitartekoekin.
- 3.2. Eguneroko gertakarien jasotzea idatziz burutzea.
- 3.3. Ikasle, sukaldari eta begiraleen kexak eta iradokizunak aztertu eta bideratzea.
- 3.4. Ikasleen hutsegiteak kontrolatzea.
- 3.5. Jangelako araudia ikastetxean parte hartzen duten alderdi guztiei ezagutarazi eta betearaztea.
- 3.6. Jangelako kudeaketa ekonomikoa bideratzea.
- 3.7. Jangelako horniketa bideratzea.
- 3.8. Ikasleek bazkaltzen duten bitartean jangelako arduraduna ikastetxean izango da.
- 3.9. Ikasleak familiei entregatzea, ikastetxeko funtzionamendu araudian zehaztuta dagoen bezala.

4. Sukaldeko langileen eginkizunak eta betebeharrak

- 4.1. Zerbitzu egokia eskaintzea.
- 4.2. Dagokien lan hitzarmenak araututako eginkizunak betetzea.
- 4.3. Ikastetxeko jangela arduradun eta zuzendaritzarekin adostutako hainbat eginkizun burutzea.

5. Begiraleen eginkizunak eta betebeharrak

Auzolagun enpresak eta jangelako arduradunek adostutako eginkizunak betetzea. Horien artean hauek:

- 5.1. Jangelako araudia ikasleei betearaztea. Arazoak sortzen direnean irakasle arduradunak daude arautegia aplikatzeko eta interpretatzeko. Hauekin koordinatu behar dira arazoei aurre egiteko.
- 5.2. Ikasleen janari banaketaz arduratzea.
- 5.3. Janari eta tresneriaren erabilera egokia bideratzea.
- 5.4. Ikasleen arteko elkarbizitza eta segurtasuna zaintzea.
- 5.5. Suertatzen diren gorabehera guztien berri jangelako arduradunari ematea.

Iruten, 2023ko otsailaren 23an Eskola kontseiluak onartua.

6. Ikasleen eginkizunak eta betebeharrak

- 6.1. Jangelako araudia ezagutu, onartu eta bete.
- 6.2. Klaseak amaitu ondoren txandaren arabera jangelara edo patiora joan, arduradun eta begiraleek emandako aginduak jarraituz.
- 6.3. Ikasle bakoitzak bere leku finkoa izango du jangelan eta bertan eseriko da.
- 6.4. Erabiltzaile guztiek aldeztu aurretik ezagututako menua bazkalduko dute, salbuespenak salbuespen. Ikasleren batek dieta berezia beharko balu medikuaren ziurtagiria aurkeztu beharko du.
- 6.5. Txukuntasunez bazkalduko da, tresna eta instalazio guztiak zainduz.
- 6.6. Janaria eta tresneriarekin ez da jolastuko.
- 6.7. Giro lasaia bazkalduko da, zarata eta iskanbilarik sortu gabe.
- 6.8. Jangelatik ezin da janaririk atera.
- 6.9. Jangelako txukuntasuna denon eginkizuna denez derrigorrez denek txukun utzi behar dute espazioa.
- 6.10. Zerbait gertatzen denean, begirale edo arduradunei jakinarazi

7. Guraso edo tutore legalen eginkizunak eta betebeharrak

- 7.1. Jangelako araudia ezagutu, onartu eta bete.
- 7.2. Jangelari dagozkion 10 kuotak ezarritako epean ordaindu: lehenengo kuota irailean eta ekainean azken 2 kuotak, hau da, maiatza eta ekainekoa. Kuotak hilaren 4ean kobratuko dira banku helbideratzearen bitartez.
- 7.3. Ikasleren batek jangelan baja eskatzen badu, eskolan abisatu beharko du eta dagokiona kobratuko zaio.
- 7.4. Jangelako hutsegiteak komunikatu beharko dira idatziz edo telefonoz, jangelako funtzionamendua errazteko.

8. Disziplina araubidea

- 8.1. Jangelako araudia haustek ondorioak izango ditu eta gertatutakoari egokitutako neurriak hartuko dira.
- 8.2. Neurrien artean hauek aurreikusten dira larritasunaren arabera:
 - A. Bakarka, ahoz ohartarazi.
 - B. Guraso edo/eta tutoreei jakinaraztea.
 - C. Ikaslea lekuz aldatzea edo bakarrik jarrit denboraldi baterako.
 - D. Zeregin hezitzaileak ezartzea. Apurtu duen arauaren araberako ondorioa ezartzea (ogia lurrera botatzen du: hurrengo egunean ogia ez eman/egun horretan lurreko ogi edo zabor puska handiak jaso...)
 - E. Ikasleren bat jangelatik kanporatzea erabakiz gero, zera hartuko da kontuan:
 - a. Behin-behineko kanporatzea, gehienez, astebetekoa bada ez da diru-kenketarik egingo.
 - b. Behin-behineko kanporatzea astebete baino luzeagoa edo behin betikoa bada bigarren astetik aurrera ez da janaririk kobratuko; bai, ordea, jangelako beste gastuak.
 - F. 2000ko martxoaren 22ko AGINDUAN, ikastetxe publikoetako jantokiak arautzen dituen, V. AZPIATALA FINANTZIAZIOA, 22. artikuluan jasota dagoena “3.- Jankideren batek ez badu kuotarik ordaintzen, jantokiko plaza galduko du. Jantokiko plaza kentzea Eskola Kontseiluak erabaki beharko du ”.